

Amets Zurutuza Eskisabel

B maila • Aipamena

Ni Amets naiz, 15 urteko neska. Andramendi ikastolako DBHko 4. mailan nago. Gustoko dut irakurtzea eta idaztea, baita musika entzutea, bidaiatzea eta lagunekin egotea ere. Espero dut nire idazlana irakurtzen gozatzea.



BARRUKO MAMUAK

Kolpe batez esnatu naiz amets gaiztoen zurrunbilotik, erabat desordenatuta. Badirudi buruak eztanda egingo didala, sekulako mina daukat...

Gau-mahaian dudan ordularia begiratu dut: goizeko hirurak.

Berriz lo hartzen saiatu naiz, baina ezin dut. Ezinezkoa da buruan ditudan oroitzapen horiek ezabatzea... haietaz libratu nahi dut. Betirako. Ezin dut ordea, ezin dut. Ezertan ez pentsatzen saiatzen naiz haietaz ahanzteko, baina ezinezkoa da, buruan darabilzkit gau eta egun.

Beste aldera begiratu, eta Ainhoa lo dagoela ikustean, argirik piztu gabe ohetik altxatu eta sukaldera hurbildu naiz, baso bat ur edatera.

Egarria asetzean, aulkian eseri eta larunbat gauean gertatutakoari buruz pentsatzen hasi naiz, buruko mamuak uxatu nahian... baina ezinezkoa egin zait.

Bat-batean sukaldeko argiak itsutu nau. Aneren ahotsa entzun dut:

- Kontxo, Lore! Orain ere esna? Ez ahal duzu inoiz lorik egiten?
- uruko mina dut, ezin dut lorik egin -esan diot ahul.
- Seguru ondo zaudela? Ez da lehen aldia gertatzen zaizuna.
- Bai, ondo nago. Lasai.

Berriz logelara itzuli naiz, baina ezin ditut mamuak uxatu, eta ezin diot inori kontatu. Zaila da ikasleen pisu batean bizi, eta denbora gutxian zure lagun minak bihurtu diren horiei zure gauzarik ilunena ezkutatzea. Ez, ezin dut kontatu. Zer pentsatuko ote dute nitaz? Lotsa ematen dit. Lotsa eta beldurra.

PROSA

Lo egitea lortu dut, ordu gutxiz bada ere. Unibertsitatera joateko prestatu, autobusa hartu eta bertan nengoen 8:00etarako. Magisteritzako fakultatera gerturatu, bertako lagun batzuekin elkartu eta barrura sartu gara elkarrekin.

Lehendabizikoz klasera joateko gogo berezia izan dut, burua gauza berriekin distraita edo okupatuta izan, ordu batzuetan nire barruan ditudan mamuei "bakealdi" bat emanez.

Atsedeneko orduan, kanpora atera gara haize pixka bat hartzera. Bidean, poste batean itsatsitako kartel bati erreparatu diot. Hainbeste aldiz pasa eta gero, lehen aldia da arreta deitzen didana. Bertan neska bat agertzen da, morez jantzita. Ondoan "ERASO SEXISTARIK EZ" esaldia irakurri daiteke

Begira-begira geratu naiz denbora luzez, pentsakor. Mamuak berriz agertu dira, kaka! Hainbat oroitzapen etorri zaizkit burura: larunbat gaua, gaueko iluna, oihuak, izugarrizko mina... Pixkanaka saihetsak ukitu ditut, eta segituan sumatu ditut harramazkak eta atzaparkadak. Inori erakutsi gabekoak eta barru-barruan gordeak. Begiak gogor itxi ditut, eta negar ez egiten saiatu naiz

- Lorea! Etorri azkar, janaria hoztuko zaizu eta!- lagunak ondoan dagoen tabernako terrazako mahaitik eserita ari zaizkit deika.

* * *

Leher eginda iritsi naiz pisura; azkenaldian nekatuta nabil. Ur berotan duxatu naiz, pixka bat erlaxatzeko. Zikin sentitzen naiz azken egunetan. Ateratzean komunekeo ispiluan nire isla begiratzen gelditu naiz, biluzik. Segituan erreparatu ditut ubeldurak eta harramazkak. Inoiz sentitu gabeko zerbait sentitzen dut. Nazka. Nire gorputzarekiko nazka.

Dutxatik atera eta pisukideak zain dauzkat afaltzeko.

- Lore! Azkenean atera zara komunetik! Etorri afaltzera - esan dit Saioak alai.

- Eskerrik asko Saioa, baina gaur ez daukat afaltzeko gogorik, beteta nago

- Ea, Lore. Zu ondo zaude? Ez duzu lorik egiten, ez duzu afaldu nahi... Zer gertatzen zaizu, neska? Mamu bat zarela dirudi azkenaldian- kexatu da Ane - Tira, etorri afaltzera on egingo dizu eta.

Azkenik, kasu egin diet lagunei eta beraiekin eseri naiz.

* * *

Gustura afaldu dut. Barre ere egin dut Ainhoak berari egunean zehar gertatu zaizkion anekdota batzuk kontatzean. Gelan, lanak egin eta lotara joateko prest jarri naiz. Mugikorra hartu dut, mezurik banuen ikusteko. Mobila piztu eta amaren mezua nuen: "Kaixo Lore, ondo al zabiltza aste honetan? Muxuak".

PROSA

Mezua ikusi eta amarengan pentsatzeari ekin diot. Beti niri laguntzen, edozer gertatuta ere ni babesteko prest... Amak beti esaten du edozer emango lukeela nigatek, eta beti nire ondoan egongo dela edozer gertatuta ere. Zer pentsatuko ote luke honi buruz? Zer esango ote lidake larunbat gauean gertatu zitzaidanari buruz?

Ohe ertzean gelditu naiz eserita, bakarrik. Malko bat isuri zait, eta beste bat eta beste bat.... Oihu egin nahi dut! Askatu eta kalera irten! Egia oihukatu! Barruko mamuak uxatu! Libre izan! Zerk oztopatzen nau, ordea?

Tamalez, egunkarietan horrelako hainbat egoera aurkitu ditut, guztiak salatuak izan direnak. Emakumeek salatuak. Emakume ausartek salatuak. Nondik atera dute indarra dena aurrera eramateko? Baina beste egoera asko eta asko ez dira kontatuak izan, itzalean gelditu dira, eta haien pisua biktimen gainean gelditua izan da, gainera. Ez, nik ez dut horietako bat izan nahi.

Ahotsa altxatu duten horietakoa izan nahi dut. Ausarta. Beldurrei aurre egiten diena. Barruko mamuak desagerrarazten dituen. Askea izan nahi duena. Bai, askea izan nahi dut, ez dut utziko nire barreneko mamuek jan nazaten.

Aurpegiko malkoak garbitu, arnasa sakon hartu, eta sukaldara joan naiz. Hemen daude pisukideak, berriketan oraindik. Iristean adi begiratu didate. Ausardiaz bete naiz.

- Neskak, zerbait esan behar dizuet...

* * *

Hurrengo goizean, unibertsitatetik atera ostean, etxeko atarian elkartu gara Ainhoa, Ane, Saioa eta ni, Lorea. Polizia etxerantz abiatu gara, lauok eskutik helduta.

Bertara iritsi, eta sartu egin naiz. Nire familiakoen eta lagunaren maitasunak inguratzen nauela badakit, indarra emanez.

- Lorea Arana naiz, eta larunbat gauean jasan nuen bortxaketa salatu nahiko nuke.